

Telekinesiaren aferaz

Haize eta ke nobelagarriekin zatoz, Ur. Telekinesia deitu diozu mamuari. *Zer litzateke gizartea, atzamarra mugitu gabe, inor beste inor hiltzeko gauza balitz?* Horra zure galdera. Geurea, tenore honetan.

Hiztegiaren begiratu dut. Arrazoi fisikorik gabe, indar psikiko edo mental batekin gauzak mugitzean omen datza telekinesia. Liburu esoteriko batean kontsultatu dut, non psikearen kontzentrazio hutsez harriak nola mugi daitezkeen azaltzen baita hamar urratsetan.

Bete ezazu gorputza energiaz, hala diote. Arnastu lasai eta sakon. Egin itzazu luzamenduariketa zenbait. Eseri lasai eta so egin zure objektu materialari, itxi begiak eta gogoratu objektua, bildu zeure energia eta proiektatu hura objekturantz, saiatu objektua mugitzen alde batera nahiz bestera, zabaldu begiak...

Telebistatik ezagutu ditut nik metalezko koilarak bihurritzen zituzten lagunak. Lebitazioa praktikatzeko zituztenak. Prestidigitadoreak. Magoak. Lehoi eta pantera hezleak. Zirku polita osatzen zuten denen artean.

* * *

Eta, zirku, zirku maltzurra bihurtu dute gure gazteek bortxa; ez geneukan nahikorik eta. Bortxa bihurtu digute telesail. Paria bat jipoitu eta telefonoarekin grabatzen dute euren balentria. Neska bat bortxatu eta berdin.

Elbarria eskaileretatik behera jaurti dute eta Interneten erakutsi digute nola zartatzen zaizkion ezpainak mailen aurkako talkan, nola erauzten dion ezker begia bere gurditxoaren torloju ero batek.

Odola erakutsi digute lehen planoan. Zoom-out, plano ireki, eta negar batean ikusten dugu sarraskia. Erabat ireki plano, eta koadrila ikusten dugu. Ehiztarien algarak entzuten ditugu.

Balentria ederra.

Hurreko kinesiak arduratzen nau ni. Ez urrunekoak edo telegidatuak. Aurrez aurrekoak jar-tzen dizkit kirioak dantzan.



J. I. Basterretxea

Olsagarre

Apalategi

Komisarietako indarkeria fisi-koak. Parke ilun batekoak. Eskola-gela batekoak. Fabrika-koak. Baita berunezko izu armatuak berak ere.

* * *

Ulertu nahi dudanez, gizartea hobetzeko kinesia diskurt-sibo baten baitatik, kargu hartu zenidan aurrekoan, Juan-

jo. Erantzun beharko dizut nola ikusten dudana kontua. Ekidistantziaren liturgiarekin azaldu zitzaizkidan zure hitzak eta ez ditut konpartitzen.

Analogia batekin indartu nahi dut nire jarrera. Hara: jakina da oso, ezpain desberdinak dauzkala atmosferak, testura eta tenperatura guztiz beste-lakoak han eta hemen, garaiera batean nahiz bes-tean bermaturik. Esparru etereo desberdinak direla atmosferako geruzak oro, batzuk eta bes-teak. Mundu desberdinak, unibertso berean badaude ere.

Ionosferan garatzen dira fenomeno batzuk eta troposferan beste batzuk. Han gertatzen dena, ez da hemen gertatzen. Halere, ez du bata bestea kentzen. Aurora boreal delako argi-mamuak ez du txingorrezko ekaitzaren ubela ukatzen. Ezta kontrara ere.

Modu eta era berean, gobernu demokratiko baten zaku urratua erakusteak eta salatzeak ez du hiri *demode* bateko kale bazter ziztrin batean klari-netea jotzen duen musikariaren oinetan itsatsita-ko zirina erakutsi beharra exijitzen. Ez du zertan. Nori berea; Zesar izan zein Jainko.

Komisarietako tortura salatu behar da, berez. Salatu egin behar dira epaitegi-tako mozkorraldiak, 18/98 deitu nahiz ez. Eta salatu eta kondenatu behar dira horiek, ETArekin ados egon ala ez.

ETA bera larrutu ala ez. Geruza desberdinetako fenomenoak dira estatu-funtzionarien lan zikoitza eta legez kanporatuena.

Ez nago beste inoren orde penitentziako, ezta erretolika merkeak jasotzeko ere. Pixontzira bota ohi dut gernua, asko ala gutxi izan. Pixaz ureztatuz gero margari-tak, segituan etorriko baitzaiz-kigu osinak lorontzira. ■

Ez nago beste inoren orde penitentziako

ordaintzeko, ezta erretolika merkeak

jasotzeko ere. Pixontzira bota ohi dut

gernua, asko ala gutxi izan